

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Eroski Fundazioa elkarlanean ari dira ebidentzia zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak sustatzeko

Lankidetzeta-hitzarmen bati esker, Euskal Herriko Unibertsitateak, Kultura Zientifikoko Katedraren bidez, elikadurari, osasunari eta elikadura-segurtasunari buruzko dibulgazio zientifikoko artikuluak argitaratuko ditu Consumer.es webgunean.

Akordioa sinatu berri dute Gotzone Barandika Argoitia EHUko Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak eta Alejandro Martínez Berriochoa Eroski Fundazioko zuzendari nagusiak.

Bilbon, 2025eko martxoaren 18an. Erabaki informatuagoak hartu ahal izateko funtsezko tresna da kultura zientifikoa, maila pertsonalean zein kolektiboan. Baita elikaduran ere: zer jaten dugun, nola ekoizten diren elikagaiak edo gure osasunean zer ondorio dituzten ulertzeak irizpideak ematen ditu, eta kontsumitzaileak erabakiak arduraz hartzeko eta ohitura osasungarriagoak ezartzeko duen gaitasuna indartzen du.

Ebidentzia zientifikoan oinarritutako kontsumo arduratsua sustatzeko helburuarekin, [Euskal Herriko Unibertsitateak](#) (EHU), [Kultura Zientifikoko Katedraren](#) bitartez, eta [Eroski Fundazioak](#) lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute dibulgazio zientifikoko edukiak zabaltzeko. Eduki horiek elikadurarekin, osasunarekin eta elikadura-segurtasunarekin lotutako gaiak jorratuko dituzte, eta [Consumer.es](#) webgunean argitaratuko dira.

Gotzone Barandika Argoitia EHUko Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak eta **Alejandro Martínez Berriochoa** Eroski Fundazioko zuzendari nagusiak sinatu berri dute

hitzarmena. Akordio horren bidez, elikadurarekin eta osasunarekin zerikusia duten edukien elaborazioa koordinatuko du Katedrak.

Alejandro Martínez Berriochoa Eroski Fundazioko zuzendari nagusiaren hitzetan, "Consumer kontsumitzaileen defentsan eta informazioan aitzindaria den argitalpena da, duela bost hamarkada baino gehiagotik lanean ari dena. Kontsumo-atari garrantzitsuena gara Estatuan, webguneko 156 milioi bistaratzerekin eta RRSSko inpresioekin, kontsumo arduratsu eta jasangarri baterako informazio zorrotzaren prestigioiko erreferente. Zientzia-dibulgazioko artikulu horiekin gure informazio- eta hezkuntza-lana indartuko dugula uste dugu, eta kontsumitzaileari lagunduko diogula, bere elikadurari eta osasunari buruzko erabaki informatuagoak har ditzan".

Gotzone Barandika Argoitia EHUko Transferentzia eta Nazioartekotze errektoreordeak azaldu duenez, "akordio honek indartu egiten du EHUk gizarteari jakintza helarazteko duen konpromisoa. Elikadura eta osasun kontuetan herritarrei informazio egiaztatua eta ebidentzian oinarritutakoa ematea unibertsitate publiko gisa dugun erantzukizunaren parte da".

Bestalde, **Iker Badiola Etxaburu** EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren zuzendariak azpimarratu du: "Lankidetzak agerian uzten du indarrak batzearen balioa, kontsumitzaileari prestakuntza eskaintzeko eta haren ezagutza sustatzeko. Horrela, bi erakundeek beren gizarte-ekintza indartzen dute, eta, horri esker, informazio hobea eta erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa duen gizarte baten alde egiten dute".

Elikadura- eta kontsumo-arloan erabakitzeke irizpide gehiago

Osasun- eta elikadura-arloko adituek parte hartuko dute dibulgazio-artikuluen edizioan, eta hilerok argitaratuko dira. Artikuluak hainbat jakintza-arlotatik landuko dira: biologia, kimika edo nutrizioa, farmakologia edo psikologia. Besteak beste, honako gaiei ekingo zaie: gazteen artean detektatu den minbizi-kasuen gorakada, arraina modu osasuntsuagoan frijitzeko klabeak edo gure organismoan prolaktinak (besteak beste, edoskitzearekin eta haurdunaldiarekin lotutako hormona) duen papera.

Lehenengo artikulua, "[Aholku biralak, diagnostiko okerrak: TikTok alde iluna](#)" David Carcedo osasun-psikologoak sinatu du eta dagoeneko Consumer.es webgunean kontsultatu daiteke. Carcedo Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) zentroko laborategi-ataleko koordinatzailea da.

Eroski Fundazioari buruz

Eroski Fundazioa irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatua da, gizarte-ekintzako hainbat eta hainbat ekimen egiten dituen, bereziki honako helburu hauekin: bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea, kontsumitzaileak hezte, ingurumena babestea eta elkartasuna piztea. Lan hori Consumer.es aldizkariaren bidez egiten du, beste euskarri batzuen artean.

Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrari buruz

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Kultura Zientifikoko Katedra unibertsitate-hedapeneko katedra bat da. Bere helburu nagusiak honako hauek dira: euskal gizartean ezagutza zientifikoa eta teknologikoa sustatzea eta eskura dituen eremu geografiko, administratibo eta kultural guztietan kultura zientifikoa zabaltzea. Katedrak zientzia-dibulgazioko aurrez aurreko jarduerak antolatuz eta blogetan—[Zientzia Kaiera](#), [Cuaderno de Cultura Científica](#), [Mujeres con Ciencia](#) eta [Mapping Ignorance](#)— eta sare sozialetan egunero argitaratuz garatzen du lan hori.

La Universidad del País Vasco y la Fundación Eroski colaboran para promover hábitos saludables basados en la evidencia científica

Mediante un acuerdo de colaboración, la Universidad del País Vasco, a través de su Cátedra de Cultura Científica, publicará una serie de artículos de divulgación científica sobre alimentación, salud y seguridad alimentaria en la web Consumer.es

El convenio ha sido suscrito recientemente por Gotzone Barandika, vicerrectora de Transferencia e Internacionalización de la EHU, y Alejandro Martínez, director general de la Fundación Eroski

Bilbao, 18 de marzo de 2025. La cultura científica es una herramienta clave para tomar decisiones más informadas, tanto en el ámbito individual como en el colectivo. También en la alimentación: comprender qué comemos, cómo se producen los alimentos o qué efectos tienen en la salud aporta criterio y refuerza la capacidad del consumidor para tomar decisiones con responsabilidad y adoptar hábitos más saludables.

Con el objetivo de fomentar un consumo responsable basado en la evidencia científica, [la Universidad del País Vasco](#) (EHU), a través de su [Cátedra de Cultura Científica](#), y la [Fundación Eroski](#) han firmado un convenio de colaboración para la elaboración de contenidos de divulgación científica. Estos contenidos, que tratarán temáticas relacionadas con la alimentación, salud y seguridad alimentaria, se publicarán en la web [Consumer.es](#).

El acuerdo de colaboración fue suscrito el pasado jueves 12 de marzo por la vicerrectora de Transferencia e Internacionalización de la EHU, **Gotzone Barandika Argoitia**, y el director general de la Fundación Eroski, **Alejandro Martínez Berriochoa**. Mediante este convenio, la

Cátedra coordinará la elaboración de los contenidos, redactados por personal investigador y especialistas en distintas áreas relacionadas con la alimentación y la salud.

En palabras de **Alejandro Martínez Berriochoa**, director general de la Fundación Eroski, “Consumer es una publicación pionera en la defensa e información de los consumidores que lleva en activo desde hace más de cinco décadas. Somos el portal de consumo más importante del país con 156 millones de visualizaciones en web e impresiones en RRSS y somos un referente de prestigio en información rigurosa para un consumo responsable y sostenible. Creemos que con estos artículos de divulgación científica vamos a reforzar nuestra labor informativa y educativa y vamos a ayudar al consumidor a que tome decisiones más informadas sobre su alimentación y salud”.

Según ha explicado **Gotzone Barandika**, vicerrectora de Transferencia e Internacionalización de la EHU, “este acuerdo con la Fundación Eroski refuerza el compromiso de la EHU con la transferencia de conocimiento a la sociedad. Facilitar a la ciudadanía información contrastada y basada en evidencia en ámbitos como la alimentación y la salud forma parte de nuestra responsabilidad como universidad pública”.

Por su parte, **Iker Badiola Etxaburu**, director de la Cátedra de Cultura Científica de la EHU, ha señalado que “esta colaboración pone de manifiesto el valor de aunar esfuerzos para ofrecer formación al consumidor y fomentar su conocimiento. Ambas entidades refuerzan así su acción social y contribuyen a una sociedad mejor informada y con mayor capacidad para la toma de decisiones”.

Más criterio para decidir en alimentación y consumo

Diferentes expertos y expertas en salud y alimentación participarán en la elaboración de **una serie de artículos divulgativos, que contarán con una periodicidad mensual**. Los artículos se abordarán desde distintas áreas de conocimiento, desde la biología, la química o la nutrición, pasando por la farmacología o la psicología. Entre los temas que a tratar figuran cuestiones como el aumento de la detección de casos de cáncer en jóvenes, las claves para freír pescado de forma más saludable o el papel de la prolactina en el organismo, una hormona vinculada, entre otras funciones, a la lactancia y al embarazo.

El primer artículo de la colaboración, "[Desinformación sobre salud mental en TikTok: qué sabemos y qué funciona para corregirla](#)", ya puede consultarse en la web de Consumer.es, y está firmado por el psicólogo sanitario David Carcedo, coordinador de sección de laboratorio en el Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL).

Sobre la Fundación Eroski

La Fundación Eroski es una iniciativa privada sin ánimo de lucro, que tiene como misión fundamental llevar a cabo múltiples iniciativas de acción social, principalmente relacionadas con la promoción de hábitos de vida saludables, la formación al consumidor, la defensa del medio ambiente y la solidaridad, labor que realiza a través de la revista [Consumer.es](#), entre otros soportes.

Sobre la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco

La Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco (EHU) es una cátedra de extensión universitaria cuyo objetivo principal es fomentar el conocimiento científico y tecnológico en la sociedad vasca y difundir la cultura científica en todos los ámbitos geográficos, administrativos y culturales a su alcance. La Cátedra desarrolla esta labor a través de la organización de actividades presenciales de divulgación científica y de la publicación diaria en sus blogs —[Zientzia Kaiera](#), [Cuaderno de Cultura Científica](#), [Mujeres con Ciencia](#) y [Mapping Ignorance](#)— y en sus perfiles redes sociales.